



GIDATZEKO BAIMENEN BIKOIZPENA

BALIZKOAK: MERKANTZIA ARRISKUTSUEN BAIMENEN ETA GIDA-BAIMEN EDO LIZENTZIAREN URRAKETA, GALERA, LAPURRETA EDO DATU ALDAKETA.

DOKUMENTAZIOA

- 1º. **ESKAERA:** Trafiko-Buruzagitzetan eskura dagoen inprimaki ofizialean eta TZNko web-orrialdean (www.dgt.es)
- 2º. **TASA IV.4** baimen eta gida-baimenen lizentziatarako: 20,20 €
TASA IV.5 merkantzia arriskutsuen baimenerako: 10,20 €
Hiru era tasak ordaintzeko: internetez www.dgt.es helbidean, banku-txartelaz Trafikoko Buruzagietan eta kontu-korronteaz edo eskudirutan finantza-erakundeetan (791 inprimakia eskuragarri dago Buruzagietan eta hemen: www.dgt.es)
- 3º. **NORTASUNA ETA EGOITZA EGIAZTAPENA:**
 - **NAN edo PASAPORTEA:** originala indarrean.
 - **EGOITZAREN BAIMENA edo bere herrialdeko NORTASUN AGIRIA edo PASAPORTEA ATZERRITARREN ERROLDA ZENTRALEKO INSKRIBAPENAREN EGIAZTAGIRIAREKIN** batera herritar komunitarioentzat: originala indarrean.
 - **EGOITZA BAIMENA** komunitarioak ez diren atzerritarrentzat: originala indarrean.
- 4º. **MERKANTZIA ARRISKUTSUEN BAIMENA, GIDA-LIZENTZIA EDO BAIMENA:** originala lapurreta edo galeren kasuan izan ezik.
- 5º. **ARGAZKIA (Gidabaimenentzat bakarrik):** originala 32 x 26 mm-koa kolorean eta atzealde leunarekin, aurretik hartuta burutsik eta kristal iluneko betaurrekorik gabe edo pertsona Identifikatzea eragoz dezakeen beste edozein janzkirik gabe. (baimen eta gida-baimenen lizentziatarako soilik).
Erljioa dela-eta ilea estalita daramaten eskatzaileak badaude, beloaz eginiko argazkiak eman daitezke baina, onartuak izateko, derrigorrezko baldintza hau bete behar da: aurpegiaren obaltoa ilearen sortzetik kokotsera arte guztiz estalgabetuta egon behar da, pertsona identifikatzea galarazi edo oztopa ez dezaten.
- 6º. **DATUEN ALDAKETA:** egiaztatzen duen agiri originala.

BALIZKO BEREZIAK

- **HELBIDEA:** Aldaketa kasuan, helbide berria jakinaraz ezazu, (ez da dokumentu berria luzatzen).www.dgt.es web orrialdean Kontsulta ezazu ea komunikazio hau udaletxetik egin daitekeen.
Erroldatze-helbide eta EJGZko frogagiriaren aurkeztu ordez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak informazio hori telematikoki ziurtatzeko berariazko baimena eman daiteke. Horretarako, izapide-eskabideko formularioan dagokion laukitxoak markatu, edo egoitza elektronikoan edo Trafikoko Buruzagitzetan eskuragarri dagoen berariazko baimen-formularioa bete behar duzu. Informazio onargarria jasotzen ez bada, egin daitekeen konponketak agiriak aurkeztea behar izango du.
- **KARTOI MEHE FORMATOA ZUTEN GIDA-BAIMENEN BIKOIZTAPENA EGITEKO: TALOI ARGAZKIA** betea eta dagokion laukiaren barruan sinadura. Probintziako eta Tokiko Trafiko Buruzagitzetan lor daiteke.
- **TASA:** Helbide berria, Erkidego Autonomoko hizkuntza koofizialera izena aldatu eta sexua dela eta izen aldaketaren jakinarazpenetatik ez da tasarik ordainduko.
- **ORDEZKARIAK:** Agiriak baimenaren titularrak aurkeztu ezean, ordezkaritzat joko duen pertsonak bere identifikazio-agiri ofiziala zein interesdunak emateko ahalmena aurkeztu behar izango ditu izapidea egiteko, non doakotasuna agertzen den.